

1.GAIA: FEUDALISMOAREN HEDAKUNTZA ETA KRISIA:

Gizarte eta ekonomia sistema patriarkala izan zen, nekazaritza ustiategi txikian oinarritua zegoen non soberakin gehiengoa jaunek bereganatzen zuten → biolentzia erabiliz. Soberakinaren helburua ez zen produkzio prozesuan berriz inbertitzea, baizik eta (guda, kultu eta prestigio) gastuetan bideratzea. XI. mendetik garatu zen. Bertan daude kapitalismoaren sorkuntzako lehen hazietako batzuk.

1.1 Demografia, nekazaritza, merkataritza eta ehungintza hedakuntza X eta XIII. mendeen artean:

-Hazkundera zuzenki feudalismoaren ereduarekin lotuta. Bere oinarri nekazari familiek kudeatutako ustiategi txiki eta dinamikoak.

-VI. Mendetik XIII. Mendera Europako populazioaren bikoizketa, hasieran mendebaldean eta gero periferiara zabaldu.

-Erregimen demografikoaren ezaugarriak: bizi-itxaropen txikia eta noizean behin heriotza krisi handiak (gaixotasun epidemikoak, goseteak gudak). Heriotza eta haur hilkortasun tasa handiak baina konpentsatzeko jaiotza tasa oso altuak.

-Hazkunde estentsibo eta intentsibo garaian heriotza krisi hauen eragina moteldu eta elikagai produkzioa biderkatu egin zen. Hazkunderaren eraginez: lur landuen eta bizilekuen zabaltzea, basoen atzerakuntza, zingiren lehortzea, herri berrien sorrera (herriak gune malkartsuetatik bailaretara jaitsi, lur emankorra goetako eremuetara) eta ondorioz, populazioaren kontzentrazioaren areagotzea.

-Hazkundera VIII eta IX. mendeko **asmakizunek** ere eragin (geldialdi garaia izan arren): belarridun goldea, zaldiaren erabilera nekazaritzan (baita zaldiarentzako lepoko, estribo, ferra eta brida), hiru orritako labore txandaketa sistema (nekazaritza kolektiboa ahalbidetuz). Ur indarraren erabileraren zabalkundera (giza indarraren ordezkapen gisa) errotarekin, alea ehotzeko eta burdingintza merkeagoa lortzeko. Aurrerago ehungintzan eta papergintzan aplikatua izan zen.

-Asmakizun horietan eragin zituzten **faktoreak**: demografikoak, Estatuaren boterearen ahulketa, kristautzaren indartze eta zabaltzea, klimaren hobetzea IX eta X. mendeetan, segurtasun orokorraren igoera, sistema feudalaren finkapena.

-Europa kristauaren mugak zabaldu egin zituzten gurutzada edo birkonkisten bidez: hegoalderantz eta ekialderantz batez ere. Itsasoko kontrola ere areagotu zen (bikingoak adb. Ternuara iritsi XI. mendean).

- Feudalismoaren garai klasikoa XI eta XIII.mendeen artea izan zen, XIV eta XV.mendeetan krisian sartu zen eta XVI eta XVIII artean feudalismo berri edo garatua nagusitu zen (Aintzinako Erregimena).

-**Bere sorrera** Erromatar inperioaren krisi garaian eta Goi Erdi Aroan izan zen (III eta X. mendeen artean). Orduan izan zen hiritar bizimoduaren gainbehera, estatu-botereen ahultze eta desagertze eta lur jabe handien berrindartzea.

-Jaunen botere eta eragina oso handia, boterearen atomizazioaren ondorioz, eremuak jaurgoetan banatu:

-Lurralde jaurgoa: luraren jabegoa inplikatzen du soilik eta nekazariek errentak ordaintzen dizkiete bertan lan egiteagatik.

-Jaurgo jurisdikzionala: luraren jabegoaz gain bertako botere politikoa zuen eta nekazariak lurak lantzen ez bazituzten ere tasa batzuk ordaindu beharra zizkieten jaunari: bidesaria, zubisaria, labesaria, errotasaria...

-Errentak ordaintzeko moduak:

1)Erreserba edo domeinuetan (jaunaren lur sailetan) korbeakeginez (lan zerbitzuak).

2)Produktuetan

3)Dirutan

-Botere zentrala oso ahulduta zenez aristokrazia militarrekin harremanak sendotzeko basailutzaren sistema hedatu zen.

-Gizartea 3 estamentutan banatua:

-Apezteria (Pribilegiodunak)

-Noblezia(zaldunen bertuteen goraiipamena)

-Nekazariak edo herria (hirugarren estamentua) (Pribilegio gabeak)

-Goi Erdi Aroan buruaskitasunera bideratutako nekazaritza nagusi (hiriak txikiak eta gutxi, merkataritzarako oso zati txikia geratu). Errentak ordaintzeko era ohikoena korbeen bitartez.

-Produkzio eta produktibitate igoerak eta segurtasunak merkataritza eta artisautza suspertu zuen (errege eta jaunei bideratutako luxuzko produktuen trukea gehienbat). Horren ondorioz, errentak ordaintzeko moduaren aldaketa: gehiago produktu edo dirutan (merkataritzarako dirua beharko dutelako).

-Jarduera “berri” hauek bultzatzeko **hiriak** askatasun gune bilakatu (feudalismoaren eskutik) eta ondorioz hirien hazkundera (XI eta XIIIko nekazaritza hazkunderaren ondorioz) gertatu zen. Hiriak mota desberdinetakoak jatorriaren arabera: erromatar jatorrikoak, berriak (erabatekoak edo gune desberdinak elkartzetik sortua).

-Hirien ezaugarriak: populazioaren kontzentrazioa, harresia, lanaren zatiketa, arau juridikoz bereziak.

ESKULANGINTZA HIRITARRAREN GARAPENA:

-Produktu espezializatuen eskari handiagoak artisauen gehikuntza sortarazi (ofizio ezberdinetako langileak produkzioaren esportazioa helburu zutena). Hiru motako artisauak: maisuak (lana zuzentzen zutenak), ofizialak (langile espezializatuak) eta ikastunak (mantenuaren truke ofizioa ikasten zutenak).

- Artisau elkarteak sortuko dira XII. mendetik aurrera babes ekonomikoa izateko:

<<GREMIOAK>>

-Helburuak merkataritza eta haien arteko konpetentzia ekiditeko arauak ezartzea: kalitate altua bermatu, produkzio maila eta langile kopurua mugatu eta maisuen arteko konkurrentzia galaraztea sortuz. Hala ere helburu nagusi prezioen jaitsiera galaraztea eskaintzari mugak jarritz.

- Ofizioaren banaketa oso handia zen arren lana ez zegoen banatua (artisau bakarrak produktu osoa burutu). Ofizioen artean hierarkia bat zegoen (oihagintzari lotuta ofizioak garrantzitsuenak). Oihagintzaren gune garrantzitsuenak: Herbeereak eta Italia iparraldea.

-Garapena baino gizarte oreka sortaraztera bideratua.

-Burdinatzak ere gora diru ekonomiaren berpizkundera eta gerretako materialaren ondorioz. Burdinolen hazkundera (basoetan uraren eta egur ikatzetik gertu), burdin gozoa labe baxuan zuzenean lortzeko sistema erabiliz. Gune garrantzitsuenak: Erteuropa, Suedia, Bizkaia, Kornualles eta Katalunia.

MERKATARITZAREN BULTZADA:

-X. mendetik aurrera Mediterraneoan merkataritza berpizkundera eman.

-Lehenengo urrunean ekoiztutako produktuen merkataritza garatu (luxuzko oihalak, espeziak, bitxiak, metal preziatuak) eta XIII. mendetik aurrera eskualdeko espezializazio maila handiagoa eragingo duen produktuena (ardoak, gazta, garia, artilea, olioak, gatzituak).

-Elkartruketako espazio arautu eta babestuen sorrera:

-Merkatuak (azokak): asteen behin ospatu eta eskualde mailakoak. Prezioak ez ziren izaten oso aldakorrak.

-Feriak: normalean urtean behin ospatu eta eskualde ezberdinen edo nazioartekoak izaten ziren. Europa iparraldetik Mediterraneoraino zabaldu ziren.

-Merkatari aberats edo goi mailako ofizioko maisu batzuk hiriko klase menderatzaile izatera iritsi: Alemania eta Italiako mugimendu komunalak edo merkataritza patrizioen nobletzea sortaraziz.

-Merkataritzaren garapena: hasieran banaka, gero commendak XII eta XIII. mendeetan (bi bazkiderekin). Ondoren, verasocieta merkataritza taldeak mozkinak bildu ondoren desagitu zirenak. XIII. mendearen amaierarako kontabilitate bikoitzaren erabilera eta orokorrean gero eta sedentarioago izateko joera.

-Urruneko merkataritza gune garrantzitsuenak: Baltikoa (Hansa) Italia eta Mediterraneo, Flandes eta Ingalaterra.

-Merkataritzarekin lotutako finantza munduaren garapena: trukalari edo cambisten sorrera eta beranduago diru transferentzia eta maileguak bezalako teknika konplexuagoak (truke letra) garatu.

1.2 SISTEMAREN HAUSTURA: BEHE ERDI AROKO BEHERALDIA (XIV-XV.MENDEAK)

-Bi mende hauetan populazioaren beherakada edo estankamendu orokorra: epidemia gogorak, eskualde abandonatuak, atzerriko konkisten amaiera, uzta txar eta goseteak, guda luze eta odoltsuagoak (Ehun Urtetakoa adibidez).

-Izurri Beltzak kontinente osoko populazioaren heren edo laurdena hil.

-Krisialdi orokorra azaltzeko:

-**Teoria neomalthustar** edo ekologikoa: populazioa eta baliabide teknikoen arteko orekaren haustura eta bere puntu gorena 1348ko Izurrite Beltza litzateke. Populazioa hainbeste hazteak nekazaritza lur gehiagoren beharra eragin eta ondorioz lur osagarrien gutxitzea (animalia gutxiagoa, ongarri, proteina iturri eta indar gutxiago). Azalpen horren osagarri bezala klimaren hozte eta hezetzea legoke uzta txarrak eraginez.

-Guy Boisen arabera azalpen malthustarrei sistemaren krisiaren gehitu, nekazariak gero eta lur gehiagoaren jabe zirelako eta krisi garaian jaunak bere estatusa defendatu beharra zuelako.

-S.R. Epsteinek Malthusen teoriari merkataritzak bizi zuen integrazio krisia gaineratu (feudalismoak oztopoak ezartzen zizkiolako).

1.3 BERRERAIKUNTZA: ZAILTASUNAK ETA ALDAKETAK:

-Krisiaren ondoren langileen soldatek gora egin zuten eta baldintza hobeak aurkitzen zituzten (errentak berdin mantendu edo behera egin). Prezioen joera orokorra behera egitearen izan eta lur emankorrenak erabiltzen zituztenez produktibitateak gora.

-Landu gabeko lurren ugaritasunak dibertsifikazioa eragin zuen nekazal produktuetan zerealen nagusitasun eta garrantzia murriztuz. Horrek kalte egin jaunei haien irabaziak murriztu egin zirelako.

-Aurre egiteko klase feudalak erreakzio ezberdinak: guden ugaltzea, jaurgoak lehen zituzten eskubideen eta morrontzaren berrezarpena (matxinada ugariren sortzaile eta Elbaren ekialdean izan ezik morrontza ia osoa desagerrarazi zuena) eta estatuaren egitura indarketa.

-Azken honek 3. estamentuak ordaintzen zituen zerga gehienak bereganatu eta nobleen artean banatzen zituen. Hala ere, nobleen garrantzia murriztu eta burgesek karrera politiko-administratiboa egiteko zituzten aukera handitu zen.

-Berreskurapena XV. mendean zehar eman zen Europako eskualde gehientsuenetan eta XVI. menderako berreskuratuak zeuden. Oinarrizko nekazaritzaren produktuen prezioek gora egin zuten.

-Nekazal produktuen gorakadak murriztu egin zuen goi mailako artisauen produktuen salmenta baina handitu landa eremuko artisautza. Hauek kalitate kaskarragoko produktuak egiten zituzten baina nekazari eta soldatapekoen bizi mailak gora egin zuenez eskaria asko handitu zen. Merkatariei ere komeni artisautza hau gremioak itxiera prozesuan murgilduta zeudelako. Lan mota horri Verlagssystem edo putting-outsystem deitu zieten:

-Merkatariak dirua edo lehengaiak aurreratu nekazari-artisauiei eta produkzio maila eta prezio merke bat finkatzen zuten.

-Merkataritzari dagokionean aldaketak gertatu ziren Behe Erdi Aroan zehar feriak merkataritza gune zentraletik desplazatuz eta Champagneko feriaren gainbehera sortarazi

zutenak: itsas garraioaren garapen teknikoa, fisko presioaren areagotzea nobleen aldetik, merkatarien sedentarizazio prozesua, etab.

-Merkataritza tekniken garapeneko garaia: merkataritza sozietateen garapena, transferentzia eta maileguak egiteko teknika garatuagoak, banka publikoaren sorrera, (gehienbat Italiarrek sortutako tekniken bidez).

-Erdi Aroko sistemaren eraldaketa gertatuko da aldaketa hauen guztien ondorioz feudalismo garatu edo berantiarra (XVI-XVIIIra sortaraziz).